

XXXVI. BIDEOALDIA

Antzoki Zaharra 19:00

Ekainak 21

Larrotxene kultur etxeak, Donostia Kulturako zentroak, ikus-entzunezko eremuan espezializatutako zentroa den aldetik, ikasturtean zehar egindako lanak Bideoaldian aurkeztuko ditu. **36 urte** dira Larrotxeneko bideo espezializazioa martxan jarri zela Intxaurren auzoko Larrotxene Kultur Etxean eta dagoeneko 500 produkzio baino gehiago ekoiztu dira eta lagundutako koprodukzioak ehunka dira.

Urtero bezala 36. Bideoaldiak **Antzoki Zaharrean** elkartuko gaitu. Aurten ekainaren 21eko arratsaldeko 19:00etan ospatuko da.

2023-2024 ikasturtea berezia izan da Larrotxenen. Aurreko ikasturteko hobekuntza lanak burutu eta gero, aurtengoan ikastaro-kopuruak gora egin du eta baita material lagapen zerbitzuak ere. Eta ekipamendu modernizatuak, material berriak eta instalazio egokitu eta berrituak betiko jardura eta ikastaroen kalitatea bermatu ez ezik, proiektu berriak abian jartzeko aukera ezin hobe eskaini dute. Horrela, kontakizun digitalen laborategiak lantalde berria jarri du abian, animazioan oinarrituta, non ikasturtean zehar **animaziozko film labur** baten sormen prozesuari ekin zaion. Aurtengoa beraz ikasturte oparoa eta sormenez beterikoa izan da eta lan horren hainbat fruitu ikusteko parada izango dugu aurtengo Bideoaldian.

Ekitaldiak ordubete inguruko iraupena izango du, eta koprodukzioen eta ekoizpen propioen artean, **7 lan** ikusi ahal izango dira. Ikastaroetan egindako lanak:

Sunglasses. Itziar Eguigurenek zuzendutako 13 minutuko film laburra. Hondartzako arratsalde ezin hobe da Erika eta Maiterentzat. Baina eguna amesgaizto txiki bihurtuko da, eta Erika, uste bezain perfektua ez dela ohartuko da.

Mi Amigo Julio. Irene Royok zuzendutako 11 minutuko film laburra. Bertan Robertok hitzordu erromantiko bat du lehen aldiz urteetan. Oso urduri dago. Baina Elena bera baino arraroagoa dela ikusten duenean, Juliok bere lagun handi eta misteriotsuaren laguntza beharko du.

El Síndrome de la Página en Blanco. Blanca Zaragüeta eta **Josean gomez** zuzendutako 17 minutuko lana da. Blokeo egoeran dagoen idazle batek pisu handi bat alokatzen du, bakarrik egoteko eta, horrela, inspirazioa berreskuratzeko. Baina ez da hain erraza bakarrik egotea.

Print. Edgar eta Unax Santos anaiek zuzenduriko 3 minutuko lana. Jon bulegaria bere lanaldi monotonoa betetzen ari da, baina inprimagailuaren bidez bidalitako mezu arraro batzuek eten egingo dute bere lana.

Saioa amaitzeko hiru koprodukzio aurkeztuko dira:

Kononi. Mikel S. Galarzak eta **Cesare Maglionik** zuzendutako 17 minutuko film laburra da. Ezberdin direnen arteko topaketari buruzko istorioa da. Gizon bat, bere jaioterriari lotuta eta gazte migratzaile bat, ibai baten ertzean aurkitzen dira ordu batzuetan zehar.

Fuego Fatuo. Nahia eta Iulen Arana neba-arrebek sortutako 2 minutuko lan honetan bikote batek hiria zeharkatzen du autoz, gatazka saihesten duten bitartean. Dena lehertzen da, ordea, lehenago edo geroago. Baina kasu honetan gauzak ez dira diruditena.

Prímula. Fabian Bojkovskyk zuzendutako 3 minutuko bideoklipa, Mucalinda taldeari eginikoa.

Bestalde, eta aurtengo ikasturteari behin betiko itxiera emateko, ekainak 28an, 19:00etan **Hitz eta Pitch** ekitaldia antolatuko da Intxaurrendoko Kultur etxean. Pitching saio honetan, Larrotxene Bideoko ikasle, ikasle ohi eta irakasleek euren etorkizuneko egitasmoak aurkeztuko dituzte.